



## DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2019

### LANBIDE

1. Proiektu bereziak (Laneratzea + Prestakuntza) .....	2
2. HEZIBI programa – Gazteentzako ikas-ekinezko programa.....	4
3. 2019ko ekitaldiko dirulaguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek martxan jartzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoetarako.....	6
4. Kontratazio-konpromisodun prestakuntza.....	8
5. Kualifikazio gutxiko gazteentzako prestakuntza.....	10
6. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria.....	12
7. Lanbide-orientazioko ekintzetarako laguntzak .....	14
8. Enplegu lagundua, desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean integratzeko neurri gisa .....	16
9. Gazteen Itzulera programa.....	19
10. Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak kontratatzeko dirulaguntzak (30 urte edo gehiago izanik luzaroko langabezia-egoeran dauden pertsonak).....	21
11. Pertsona ekintzaileentzako laguntzak .....	23
12. Errelebo-kontratua .....	25
13. Familia eta lana kontziliatzeko laguntzak .....	27
14. Desgaitasuna duten pertsonak enplegu-zentro berezietan laneratzeko laguntza eta dirulaguntza publikoak .....	29
15. Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dirulaguntza, langabezia-prestazioa kobratzen dutenentzat. Ordainketa bakarra .....	31
16. Dirulaguntzak, desgaitasuna duten pertsonak enpresa arruntean kontratu mugagabearekin kontratatzeko. 1451/1983 Errege Dekretua .....	33
17. Enplegua sustatzeko tokiko laguntzak .....	34
18. Laneratzeko enpresei zuzendutako laguntzak.....	36
19. Laguntzak SINTEL enpresako langileei .....	38
20. Enplegu-zentro berezietan lanbide-jarduera sustatzeko unitateak .....	40
21. Lehen Aukera Programa .....	42
22. Tokiko entitateek gazteak kontratatzea, 2014-2020 eperako Gazte Enpleguaren Programa Operatiboaren esparruan .....	44
23. Tokiko enplegua garatu eta sortzeko proiektuak .....	46



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Proiektu bereziak (Laneratzea + Prestakuntza)**

## 2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2019ko maiatzaren 22koa, 2019ko laguntzen deialdia onartzen duena, langileei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten pertsona langabeei zuzendutako laneratze eta gizarteratze proiektu berezien garapenerako. (2645 Ebazpena, 2019/05/23 - 2019ko maiatzaren 31ko EHAA)

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/05/1902645a.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da Proiektu Bereziak finantzatzera bideratutako 2019rako laguntzak arautzea. Proiektu berezi horiek langileak gizarteratzeko eta laneratzeko edo haien enplegarritasuna hobetzeko jarduketa integralak dira, beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin hainbat esku-hartze mota bateratzen edo koordinatzen dituztenak.

Proiektu bereziek prestakuntza-, orientazio- eta enplegu-ekintzak edo haietan parte hartzen duten pertsonen enplegarritasuna hobetzeko bestelako neurriak konbinatzen dituzte:

- a) Prestakuntza ematea, bai kompetentzia profesionaletan, bai oinarrizko kompetentzietan, edo Prestakuntza Espezialitateen Katalogoan erregistratutako premiazko prestakuntzetan edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak baimendutako beste prestakuntzetan. Lanpostuan bertan prestakuntza-ekintzak egiteko aukera ere egon daiteke, prestakuntza enpleguarekin txandakatuz.
- b) Enplegu-aukerak aztertzea: kontratatzaileak izan daitezkeenak kontaktatu eta inplikatzeko, eta lan-merkatuko beharrak identifikatzeko eta parte hartzen duten pertsonen kontratazioa bultzatzea.
- c) Lanbide-orientazioko eta laneratzeko ekintzak, laneratzeko ibilbide pertsonalizatua egitea sustatze aldera, parte hartzen duten pertsonen jarraipen pertsonala eta emaitzen ebaluazioa egin ahal izateko.
- d) Parte hartzen duten pertsonak kontratatze laguntzak. Deialdi honetan diruz lagundu ahal izango dira gutxienez 6 hilabeteko iraupena duten kontratuak. Lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izan daitezke; azken kasu horretan, ezin dira izan ezarritako lanaldiaren % 70etik beherakoak.
- e) Beste edozein jarduera, helburutzat duena hartzaileen enplegarritasunaren hobekuntza bermatzea.



Proiektu berezien ekintzak laneratzeko zailtasun espezifikoak dituzten pertsoneri zuzenduta daude: langabeak eta lan-merkatuan jarraitzeko eta enplegagarritasuna hobetzeko prestakuntza espezifikoa behar duten pertsona okupatuak.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

##### **Lortutako emaitzak**

Prestakuntza-ekintzak: 284 prestakuntza-ekintza, 44 proiektu integralen barruan, 1.441 pertsonari zuzenduak.

Prestakuntza jaso duen pertsona-kopurua: 1.441 pertsona

##### **Aurrekontuaren exekuzioa**

2019. urteko Proiektu Bereziak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 4.000.000 eurokoak dira; horietatik, 2.000.000 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2019ko aurrekontuko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 2.000.000 euro, 2020ko konpromiso-kredituari.

2019an exekutaturako aurrekontua: 1.854.656,57 €

##### **Gizartean duen eragina eta baliagarritasuna:**

Deialdi honen bidez diruz lagundutako jardueren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona okupatuei eta langabeei —gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasun handienak dituztenak— aukera ematen zaie prestakuntza jasotzeko, eta lana aktibatzeko ekintzak ere bai, lan-merkatuan sartzen direla bermatzeko. Dirulaguntza-lerro hori beste erakunde batzuen finantzaketa duten proiektuak batera finantzatzeko diseinaturata dago, eta xedea da ahaleginak batzea eta koordinatzea, eta helburuak lortzen direla bermatzea.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Prestakuntza-ibilbidea amaitu duten eta, gutxienez, 1. edo 2. mailako kualifikazioko titulazioa lortu duten pertsonak: % 50	50%	*
Aldez aurretik jasotako prestakuntzarekin lotuta dagoen jarduerasektoreko enpresetan kontratatutako pertsonak: % 30	30%	*

\* Proiektua martxan dago, hortaz, oraindik ez dago Dirulaguntzen Plan Estrategikorako daturik.



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**HEZIBI programa – Gazteentzako ikas-ekinezko programa**

## 2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2019ko maiatzaren 22ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez esleitu baitziren 2019ko laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak. Laguntza horiek aurreikusita daude Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko urriaren 3ko Agindu bateratuan, non gazteentzako ikas-ekinezko Hezibi Programaren oinarri arautzaileak ezartzen baitira.

(2644 Ebazpena, 2019/05/23 - 2019ko maiatzaren 31ko EHAA)

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAARI Hiperresteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/05/1902644a.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lanbide-heziketa eta lana txandakatzeko eredia. Enpresen esparruan enpleguari eta bestelako irakasbideei lotutako prestakuntza-ekintzak bultzatzea lanbide-heziketako ikasleentzat eta gazte langabeentzat, enpresako lan-jarduera ordaindua eta profesionaltasun-ziurtagiri bat edo hasierako lanbide-heziketako titulu bat lortzeko ikasketak txandakatu, gazte horien konpetentzia profesionalak hobetzeko, eta, era berean, enpresen premiak eta langileek eskuratutako konpetentziak uztartzen laguntzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

**Lortutako emaitzak**

Prestakuntza dualeko 800 pertsona kontratatuk jaso dute Hezibi dirulaguntza 2019an.

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Ebazpenaren arabera, 2019ko ekitaldiko laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 2.300.000 eurokoak dira guztira; horietatik, 690.000 euro 2019ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.610.000 euro 2019ko konpromiso-kredituari, programa honen kargura: 3231 – Prestakuntza, 41. Sekzioa – Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua (Laguntza horiek aurreikusita daude Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko urriaren 3ko Agindu bateratuan, non gazteentzako ikas-ekinezko Hezibi Programaren oinarri arautzaileak ezartzen baitira).

2019an exekutututako aurrekontua: 511.710,59 €

**Gizartean duen eragina eta baliagarritasuna:**

Prestakuntza dualak zuzeneko eragina du Lanbide Heziketako titulu bat edo profesionaltasun-ziurtagiri bat lortzeko ikasten ari diren gazteen enplegarritasunean. Izan ere, gazteak prestakuntza- eta



ikaskuntza-kontratuaren bidez kontratatzen dituzte, eta horrek abantaila ugari ditu hala enpresentzat nola langileentzat. Nolanahi ere, programa eragiten ari da Lanbide Heziketako tituluak ikasten dituzten ikasleengan, baina ez da eraginkorra Lanbideren programen barruan profesionaltasun-ziurtagiriak ikasten dituzten ikasleen kasuan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Eraitza</u>
Prestakuntzan dauden pertsona kontratatuen kopurua:	1.346	800



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2019ko ekitaldiko dirulaguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek martxan jartzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoetarako**

#### 2.- Araua

Erabakia, 2019ko irailaren 3ko bilkura hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen 2019ko laguntza ekonomikoen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoak gauzatzeko (4176 Ebazpena, 2019/09/03 - 2019ko irailaren 12ko EHAA)

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/09/1904176a.pdf>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza ekonomikoak, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek beren langileen kompetentziak hobetzeko programaturiko prestakuntza-ekintzak (prestakuntzako estrategia-ekintzak) garatzeko.

Estrategia-ekintzak dira enpresaren proiektuari zuzenean lotuta egonik premien diagnostiko batean edo antzeko agiri batean —aurkezturiko ekintzen eta horiek hartuko dituzten langileen lehenetsunaren adierazgarri den batean— jasagarriak direnak.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

##### **Lortutako emaitzak**

5.359 pertsonak prestakuntza jaso dute 236 enpresatan.

##### **Aurrekontuaren exekuzioa**

EBAZPENAREN arabera, deialdi hau finantzatzeko 3.200.000 euroko baliabide ekonomikoak erabiliko dira gehienez; horietatik, 1.600.000 euro 2019ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.600.000 euro, 2020ko konpromiso-kredituari.

2019an exekutututako aurrekontua: 1.600.000 euro

##### **Gizartean duen eragina eta baliagarritasuna:**

Enpresentzako ekintza estrategikoek eragin positiboa dute dirulaguntzak eskatzen dituzten enpresetan lanean ari diren pertsonen prestakuntzan. Hain zuzen, prestakuntzaren bidez, enpresak zehaztutako prestakuntza-helburuak bete nahi dira. Langileak jasotzen duen prestakuntzari esker, bere lana hobeto egin ahal izango du, eta hobeto egokituko da enpresak bere eguneratze-prozesuan eta produkzioaren bilakaeran egin behar dituen teknologia- eta prozesu-aldaketetara.



Programa horrek Lanbideek diruz lagundutako prestakuntza-sistema hobariduna osatzen du, eta enpresa-sarearen zati txiki batek soilik erabiltzen du, hau da, prestakuntza-kreditu hobariduna agortzen duten eta horretarako prestakuntza gehigarria egiten duten enpresek.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Prestakuntza jaso duen pertsona-kopurua:	12.500	5.359
Enpresa parte-hartzaileen kopurua.	280	236



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kontratazio-konpromisodun prestakuntza**

## 2.- Araua

Erabakia, 2019ko maiatzaren 22ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartzen baita dirulaguntzen 2019ko deialdia, lanik ez duten langileentzako kontratazio-konpromisodun prestakuntza-ekintzak gauzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan. (2643 Ebazpena, 2019/05/23koa - 2019ko maiatzaren 31ko EHAA)

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/05/1902643a.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da kontratazio-konpromisoa duten prestakuntza-ekintzak finantzatzeko 2019. urteko laguntzak arautzea. Laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko langabeei zuzenduta daude, eta Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan ematen dira.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

**Lortutako emaitzak**

- Kontratazio-konpromisodun prestakuntza-ekintzetan parte hartu duen pertsona-kopurua: 576
- Kontratazio-konpromisodun prestakuntza-ekintzei esker kontratatu den pertsona-kopurua: 288 pertsona kontratatzeke, ekintzak gauzatu ondoren.

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Deialdi hau finantzatzeko baliabide ekonomikoak 3.000.000 eurokoak dira; horietatik, 1.500.000 euro 2019ko ordainketa-kredituari dagozkie, eta 1.500.000 euro 2020ko konpromiso-kredituari.

2019an exekutututako aurrekontua: 899.792,91 €

**Gizartean duen eragina eta baliagarritasuna:**

Deialdi honek enpresa batzuei sortu zaizkien behar jakin batzuei erantzuten die, hori baita programa honen berezko helburua. Gainera, prestakuntza-entitateek dinamizatutako kontratazioa "sustatzeko" programa bat da, eta langabeak prestakuntza-zentroetan eta beste enpresa batzuetan sartzera behartzen du, eskabidean hartutako konpromisoak betetzeko.





## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Prestakuntza jaso duen pertsona-kopurua	1.000	576
Konprometitutako kontratu-kopurua	500	288



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kualifikazio gutxiko gazteentzako prestakuntza**

## 2.- Araua

Erabakia, 2019ko uztailaren 4ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen dirulaguntzen 2019-2021 aldiko deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio apaleko gazte langabetuen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak gauzatzeko. (3464 Ebazpena, 2019/07/04 - 2019ko uztailaren 17ko EHAA)

Akatsen zuzenketa: Ebazpena, 2019ko azaroaren 8koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez ebazpen honen huts-zuzenketa egiten baita: Ebazpena, 2019ko uztailaren 4koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio apaleko gazte langabetuen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egiteko 2019-2021eko dirulaguntzen deialdia argitaratzen da. (2019ko azaroaren 25a)

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/07/1903464a.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/11/1905454a.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da 2019-2021 aldirako laguntzak arautzea, oinarrizko kompetentziak, kompetentzia soziopertsonalak eta oinarrizko kompetentzia tekniko eta profesionalak lantzeko ibilbideak sortzen dituzten prestakuntza-proiektuak finantzatzeko; hala, prestakuntzaren hartzaileen garapen pertsonala eta laneratzea zein gizarteratzea sustatzen dute, eta 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzen laguntzen diete.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

**Lortutako emaitzak**

195 gaztek parte hartu dute onetsitako 13 proiektuen prestakuntza-ibilbideetan.

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Deialdi hau finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.618.500 eurokoak dira; horietatik, 407.250 euro 2019ko ordainketa-kredituari dagozkio, 809.250 euro 2020ko konpromiso-kredituari, eta 402.000 euro 2021eko konpromiso-kredituari.

2019an exekutaturako aurrekontua: 371.625,00 euro

**Gizartean duen eragina eta baliagarritasuna:**

Programa honekin, konponbidea eman nahi zaio, batetik, ikasteari utzi zioten gazteen arazoari, beren adinagatik berriro hasierako lanbide-heziketa egin ezin dutenak; eta, bestetik, gaztelaniaz ikasi ez ezik, gaitasun sozial eta kulturalak bereganatu eta lan-prestakuntza egin behar duten etorkin gazteen arazoari, gurean gizarteratzeko eta laneratzeko.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Prestakuntza-ekintzak:	124	124
Prestakuntza jaso duen pertsona-kopurua:	195	195



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria**

## 2.- Araua

- 18/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa
- 147/2010 DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa.
- 2/2010 DEKRETUA, urtarrilaren 12koa, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriari buruzkoa.
- 2001eko otsailaren 14ko AGINDUA, Oinarrizko Errentaren titularrak eta Gizarte-larrialdietarako Laguntzen onuradunak lanean hasteko pizgarriak ezartzen dituenak.
- 4/2011 LEGEA, azaroaren 24koa, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea aldatzen duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAri Hiperesteka)

- 18/2008 LEGEA, abenduaren 23koa:  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2008/12/0807235a.pdf>
- 147/2010 ERREGE-DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa:  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/06/1003020a.pdf>
- 2/2010 ERREGE-DEKRETUA, urtarrilaren 12koa:  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/01/1000216a.pdf>
- AGINDUA, 2001eko otsailaren 14koa:  
<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2001/02/0100962a.pdf>
- 4/2011 LEGEA, azaroaren 24koa:  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2011/12/1105924a.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta izeneko prestazio ekonomikoa aldizkakoa eta eskubide subjektibokoa da, bizikidetzaren unitate batean oinarrizko premiei lotutako gastuei zein gizarteratzeko edo laneratzeko prozesu baten ondorio diren gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez daukatenei zuzendua.

Etxebizitzarako Prestazio Osagarriari aldizkako prestazio ekonomikoa da, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) osagarria. Etxebizitzaren edo ohiko bizilekuaren alokairu-gastuak ordaintzea du xede, modalitatea edozein dela ere: errentamendua, azpierreantamendua, baterako errentamendua, ostatatzea eta logelen alokairua.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

**Lortutako emaitzak**

Espedienteen/DSBEren titularren batezbestekoa: 53.515

Espedienteen/EGPOren titularren batezbestekoa: 25.045

Onuradunen batezbestekoa: 95.570

**Aurrekontuaren exekuzioa**

DBE eta EGPOra bideratutako kreditua 2019an: 470.300.000,00 €

2019an exekutatutako aurrekontua:

DSBE 357.182.857,35 €

EPO: 77.059.718,44 €

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina:**

Euskal gizarteko kolektiborik kalteberenak babesteko programa da, eta bere helburua lortu du, 53.000 pertsona baino gehiago babestu baititu 2019an.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Ez dagokio, ez baita dirulaguntza.



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Lanbide-orientazioko ekintzetarako laguntzak**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 26koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita dirulaguntzen 2019-2021eko deialdia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan enplegurako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak gauzatzeko. (3497 Ebazpena, 2018/12/26koa - 250. EHAA, 2018ko abenduaren 31koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/12/1806418a.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegurako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak garatzeko laguntza ekonomikoak dira, hiru kapitulutan banatuta: biztanleria osoari zuzendutako lanbide-orientazioko ekintzak, desabantaila-egoeran dauden kolektiboetako pertsonen zuzendutako lanbide-orientazioko ekintzak eta biztanleriari oro har zuzendutako enplegu-zentroko zerbitzua ematea.

Erabaki honen bitartez, enplegu-zentroen ezaugarriak zehazten dira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzutik kanpoko entitate espezializatuen laguntza behar duten kolektiboak zehazten dira, desabantaila-egoeran daudenak, baita haiei zuzendutako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak ere, eta haiek finantzatzeko deialdia egiten da.

Aurreko ekitaldietan, dirulaguntza-lerro bakoitza deialdi desberdin bat zen, eta 2019an hiru deialdiak deialdi bakar batean bateratu ziren berriro.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak Onuradunak:

Jarduketa-mota	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Orientazio orokorra	5.021	5.835	10.856
Gizarte-bazterketako egoeran daudenak	2.354	2.461	4.815
Desgaitasun bat duten pertsonak	1055	655	1.710
Ijitoak	333	368	701
Presoak	156	19	175
Enplegu-zentroa	4.992	4.318	9.310
Guztira	13.911	13.656	27.567



### Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 15.382.080 eurokoak dira; horietatik, 3.845.520 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2019ko aurrekontuko ordainketa-kredituari dagozkio, 7.691.040 euro 2020ko konpromiso-kredituari, eta 3.845.520 euro, 2021eko konpromiso-kredituari.

2019an exekutatutako aurrekontua: 3.801.520 € (98,92%)

### Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lanbiden inskribatutako pertsoneri arreta emateko mekanismoa da; lanbide-orientazioko prozesuetan esperientzia egiaztatua duten entitateen bidez ematen da arreta, bulegoetan egindako orientazio-prozesuak indartzeko.

Zerbitzua pertsonen beharretara hobeto egokitzeko, entitate espezializatu batzuek arreta ematen diete laneratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboko pertsoneri. Azken kasu horretan, laguntzarik izan ezean, arreta pertsonalizatua izango lukete kolektibo horiek, baina ez litzateke espezializatua izango, eta horrek lan-orientazioko gabeziak sorraraz ditzake.

Azkenik, orientazio-ekintzak indartzeko, dirulaguntzak ematen zaizkie enplegu-zentroei, non enplegua bilatzeko prozesuan dauden pertsonen tresna teknologikoak erabil ditzaketen.

### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Entitate laguntzaileek arreta emandako pertsonen kopurua:	50.000	18.257*
Enplegu-zentroek arreta emandako pertsonen kopurua:	40.000	9.310*

\* Ekintzak 2019ko uztailean hasi ziren, eta, beraz, urte erdian baino ez ziren gauzatu.



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Enplegu lagundua, desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean integratzeko neurri gisa**

## 2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2018ko abenduaren 28ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartzen baita enplegu lagundurako jarduketak garatzera bideratutako 2019ko dirulaguntzen deialdia, desgaitasunak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntean sartzeko neurri gisa. (6416 Ebazpena, 2018/12/18 - 2018ko abenduaren 31ko EHAA).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAARI Hiperesteka)

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2018/12/1806416a.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

**Deskribapena:** Enplegu lagunduko jarduerak egiteko laguntzak eta pizgarriak arautzen ditu, desgaitasuna eta laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntean laneratzeko tresna izateko eta enpresei laguntzeko, bai kontratatu aurretik, bai pertsona lanpostua betetzen hasi ondoren. Hala, enplegu lagunduko unitateetako profesional espezializatuek (lan-arloko prospekziogileek eta prestatzaileek) ematen dute laguntza hori, zenbait jarduera integraturen bidez.

**Helburua:** Enplegu lagunduko unitateen jarduera diruz laguntzeko, konpromiso batzuk hartu eta helburu batzuk bete behar dira, hala nola, desgaitasuna eta laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen enpleguko eta laneratzeko aukeren prospekzioak egitea. Pertsona horiek Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egon behar dute, enplegu-eskatzaille gisa. Honako pertsona hauen laneratzeari lehenetsiko da:

- desgaitasun intelektuala, buru-gaixotasuna edo garuneko paralisia duten pertsonak, % 33ko edo hortik gorako desgaitasun-gradua aitortua dutenak.
- desgaitasun fisikoa edo zentzumenezkoa duten pertsonak, % 65eko edo hortik gorako desgaitasun-gradua onartua dutenak; edo gorra edo entzuteko desgaitasuna duten pertsonak, %33ko edo hortik gorako minusbalotasun-gradua onartua dutenak.

Desgaitasuna duten emakumeen laneratzeari bultzatzeko, % 10 handituko da diru-laguntzaren zenbatekoa, baldin eta emakume bat kontratatzen baldin bada.

Halaber, zehaztutako desgaitasun mota horiek dituzten langileak, enplegu-zentro berezietan aritutakoak, lan-merkatu arruntean laneratzeari aurreikusten da, bai eta dagokion deialdiaren aurreko urteetan laneratutako pertsonen eta enpresei laguntzea ere.





#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Enplegu lagunduko ekipo kopurua: 9

Desgaitasuna duten pertsonen egindako kontratu-kopurua: 98

Desgaitasunak dituzten zenbat pertsona dauden jarraipen-prozesuan: 179

Enpresetara egindako bisita-kopurua: 1.804

Lortutako emaitzen datuak ez dira behin betikoak; 4 entitatek aurkeztutako justifikazio-memoretan oinarritzen dira, edo entitateek justifikatu aurretik egindako estimazioetan. Edozein kasutan, berrikusi egin behar dira.

#### Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.000.000 eurokoak dira; horietatik, 500.000 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2019ko aurrekontu arruntari dagozkio, eta beste 500.000 euro 2020ko konpromiso-kredituari.

2019an exekutaturako aurrekontua: 500.000 € (100%)

#### Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Desgaitasuna izanik lan-merkatu arruntean laneratu den pertsona-kopurua handituz doa, eta hori nahitaez lotu behar da jarraipenaren eta enplegua mantentzearen adierazleekin. 2019an, lortutako 4 kontratutatik 1 kontratu mugagabeak izan dira (% 24,5); aldi baterako kontratuak, berriz, 4 kontratutatik 3. Gainera, kontratu-mota gorabehera, 55 kontratuk urtebete iraun dute iraupena gutxienez. Hau da, enplegu lagundurako 2018ko deialdian lortutako laneratzeen % 80,6k gutxienez 12 hilabeteko lan-esperientzia izan du.

Enplegu Lagunduaren metodologiaren bitartez lan-esperientzia luzeak lortzean, desgaitasun bat duten pertsonak hobetu egiten dute beren enplegarritasuna, biztanleria aktiboan mantentzen dira, eta, kontratua iraungiz gero, aukera gehiago izango dute lan berria aurkitzeko. Lanaldi-motei dagokienez, esan behar da ezen lagundutako enpleguan lanaldi osoak nagusitzen ez diren arren, 44 pertsonak lanaldiaren %100ean jardun dutela (%44,9), eta, 2019an lortutako kontratuetan, %98k %50etik gorako lanaldiak izan dituztela (96).

Lanaldiaren banaketa	Laneratzeak	%
%50etik behera lanaldiak	2	% 2,0
%50etik %69ra bitarteko lanaldiak	37	37,7%
%70etik %99ra bitarteko lanaldiak	15	% 15,3
Lanaldi osoa	44	% 44,9
Guztira	98	% 100



Gizonek eta emakumeek programan duten parte-hartzeari dagokionez, datu hauek ditugu: enplegu lagunduaren metodologiaren bidez ohiko merkatuan sartutako pertsonen artean % 35,7 emakumeak dira, eta lagundutako langileen artean, % 37,4. Zifra horiek hau adierazten dute: desgaitasuna duten gizon-emakumeen kasuan, emakumeak gizonak baino gutxiago sartzen dira lan-merkatuan.

Enplegu babestuaren aurrean, Enplegu Lagunduaren zerbitzuak sustatzen duena da desgaitasuna duten pertsonen lan-giro arruntean jardutea, hau da, enpresa berean antzeko lanpostuak betetzen dituzten eta desgaitasunik ez duten beste langileek dituzten antzeko baldintzetan lan egitea. Hortaz, lan-giro normalizatueta desgaitasuna duten langileen presentzia sustatzea da zerbitzu horren helburua, eta beste ekintza publiko batzuekin batera, desgaitasuna duten pertsonen laneratzea ere sustatzen du; hala, estatu mailan, Euskal Autonomia Erkidegoa da jarduera- eta enplegu-tasa altuenetakoak dituen autonomia-erkidegoa, eta desgaitasuna duten pertsonen langabezia-tasa, berriz, baxuenetarikoa.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Enplegu lagunduko talde kopurua:	9	9
Desgaitasunak dituzten zenbat pertsona kontratatu diren:	70	98



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Gazteen Itzulera programa**

## 2.- Araua

Administrazio Kontseiluren Erabakia, 2018ko abenduaren 18ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen gazteak itzultzeko 2019ko laguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko lan-zentroetan gazteak kontratatzeko. (6417 Ebazpena, 2018/12/18koa - EHAA, 2018/12/31)

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAri Hiperesteka)

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2018/12/1806417a.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburua honako hauek sustatzea da:

- a) Euskal lan-merkatuan sartzea EA Erekin loturaren bat duten 35 urtetik beherako gazteak, itzuli nahi dutenak edo azken 3 hilabeteetan itzuli direnak.
- b) Euskal enpresetan laneratzea beren kompetentzia linguistiko eta profesionalak EA Etik kanpo eskuratu edo handitu dituzten gazteak, eta, aldi berean, enpresen lehiakortasuna hobetzea.

Horretarako, euskal enpresei kontrataziorako dirulaguntzak ematen zaizkie, eta laguntzak ematen zaizkie oraindik itzuli ez diren gazte kontratatuei, itzulerari lotutako joan-etorrien gastuetarako.

Kontratatuko diren pertsonak 35 urtekoak edo gutxiagokoak izan behar dute, azken 12 hilabeteetan EA En lanik egin gabeak eta kanpoan bizitakoak. Era berean, EA Erekiko lotura bat izan behar dute, dela bertan jaio direlako, dela aurrez aurreko ikasketak egin eta titulu ofizial bat lortu dutelako, edo irten baino bi urte lehenago administrazio-auzotasuna izan zutelako.

Lan-kontratua mugagabea edo aldi baterakoa izango da, gutxienez 12 hilabetekoa, lanaldi osokoa edo partzialekoa, baina inoiz ere ez ezarritako lanaldiaren %70etik beherakoa.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

**Lortutako emaitzak**

- Enpresa-eskatzaileen kopurua: 23
- Eskatutako kontratazio-postuen kopurua: 25
- Enpresa onuradunen kopurua: 13
- Gazteei egindako kontratu-kopurua: 13
- Lekualdaketagatik emandako laguntza-kopurua: 9
- Lekualdaketagatik emandako laguntza-kopurua: 6



### Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.770.000 eurokoak dira; horietatik, 1.085.500 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2019ko aurrekontuko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 584.500 euro, 2020ko konpromiso-kredituari.

2019an exekutaturako aurrekontua: 104.864,00 €

### Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Programa ezagutu eta hartan interesa izan dezaketen enpresen eta gazteen kopurua handitzeko, kanpaina bat egin da, ekintza hauen bidez: a) EAEko enpresen eta EAERekin loturaren bat izanik kanpoan bizi diren pertsonen artean, zabalkundea egin da sare sozialen bidez, linkedina ere erabiliz; b) 6 bideo, 3 enpresaren eta itzulitako eta kontratatutako 3 pertsonaren testigantzekin; c) Lanbideren webgunean informazioa hobetu da, lurreratze-orri baten bidez, enpresa eta pertsoneri programari buruzko informazio eraginkorragoa eta eskuragarriagoa eskaintzeko.

2018ko deialdiari dagokionez, %66,6 igo da eskaera-kopurua, eta %100, diruz lagundutako kontratazioak. Igoera hori gorabehera, programak ez du behar besteko interesik sortu gazte-kolektiboen eta enpresen artean. Alde batetik, Gazteen Itzulera programako fitxategian dauden gazteentzako lan-eskaintzak ez dira nahikoak izan, eta, zenbait kasutan, lanpostuak bete gabe geratu dira, hautagai egokirik aurkitu ez delako.

### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Kontratatutako gazte langabeen kopurua:	214	13
Joan-etorrietarako emandako laguntza-kopurua:	198	6



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak kontratatzeko dirulaguntzak (30 urte edo gehiago izanik luzaroko langabezia-egoeran dauden pertsonak)**

## 2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2019ko irailaren 3ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen 2019ko laguntzen deialdia, EAeko enpresen kanpoko lantokietan luzaroko langabezian dauden 30 urteko edo gehiagoko langabeak kontratatzeko. (4177 Ebazpena, 2019/09/03 - 2019ko irailaren 12ko EHAA).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAARI Hiperesteka)

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/09/1904177a.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

**Deskribapena:** EAeko enpresentzako laguntzak arautzea, 30 urte edo gehiago izanik luzaroko langabezia-egoeran dauden pertsonak kontratatzeko, kontratu mugagabeen bidez edo 6 hilabete edo gehiagoko iraupena duten aldi baterako kontratuen bidez, pertsona horiek euskal lan-merkatuan sartzen laguntzeko neurri gisa. Kontratuak lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izango dira; azken kasu horretan, inoiz ez dira izango ezarritako lanaldiaren % 70etik beherakoak.

Diruz lagundutako zenbatekoak oinarritzat hartzen ditu urteko ordainsari gordinaren gutxieneko zenbateko batzuk, eta kontratuaren iraupenaren eta kontratatutako pertsonaren titulazio-mailaren arabera finkatzen da. Laguntzak handiagoak dira kontratatzen diren iraupen luzeko langabeek honako ezaugarri hauek badituzte: a) emakumeak edo 45 urteko edo gehiagoko pertsonak izatea (% 15); b) 2019an LANBIDEN kontratatzeko konpromisoa duen prestakuntza-ekintza bat amaitu duten pertsonak izatea, baldin eta kontratuak 12 hilabeteko iraupena badu gutxienez eta lanaldia ezarritako lanaldi osoaren % 70era iristen bada gutxienez (+% 10); c) kontratatutako pertsonak a) eta b) ataletako baldintzak betetzen baditu; dirulaguntzaren zenbatekoa %20 gehituko da gehienez ere.

**Helburuak:**

- EAEn bizi, eta gaur egun langabezian egonik luzaroko langabezia-egoeran dauden pertsonak (360 egun azken 540 egunetan) egoera hori utz dezaten eta euskal lan-merkatuan txerta daitezen sustatzea.
- Enpresek luzaroko langabezia-egoeran dauden pertsonak kalitatezko enpleguekin kontrata ditzaten sustatzea.



## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

**Lortutako emaitzak**

Enpresa eskatzaileen kopurua: 30

Eskatutako kontratu-kopurua: 30

Emandako kontratu-kopurua: 15

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.410.000 eurokoak dira; horietatik, 705.000 euro 2019ko aurrekontu arruntari dagozkio, eta beste 705.000 euroak, 2020ko aurrekontuko konpromiso-kredituari.

2019an exekutaturako aurrekontua: 65.812,08 €

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Deialdia onartzean, euskal lan-merkatuaren ezaugarri berezi bati erantzun nahi zaio, non langabetu gehienak luzaroko langabezia-egoeran baitaude. Hala, lehen deialdia onartzeko unean, 2019ko irailean, pertsona horiek EAEko langabe guztien % 54,70 ziren. Ebaluazio hau egin den unean, langabeen kopurua asko ari da igotzen euskal lan-merkatuan; beraz, jaitsi egingo da luzaroko langabezia-egoeran daudenen portzentajea. Baina etorkizun hurbilean, ziurrenik langabezian denbora gutxien daramatenak sartuko dira lan-merkatuan, estatistika-analisietan ikusten eta Europar Batasunak EBko Kontseiluaren Gomendioan jasotzen den bezala (2016/C 67/01).

Ondorioz, enplegu-politikaren ikuspegitik, baliagarritzat jotzen da enpresek luzaroko langabezia-egoeran dauden pertsonak kontrata ditzaten sustatzea.

Eragin sozialari dagokionez, eskaerak aurkezteko epea oso motza izan da (irailaren 13tik azaroaren 22ra), eta horri eransten badiogu deialdi-mota hau berria dela eta, gainera, bakarrik sare sozialen bidez zabaldu zela, ulertzen da eskaera gutxi egotea.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Prestakuntza jaso duen pertsonen kopurua	131	16



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Pertsona ekintzaileentzako laguntzak**

## 2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2019ko ekainaren 18ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen pertsona ekintzaileentzako laguntzen 2019ko deialdia. (3205 Ebazpena, 2019/06/18koa - 122. EHAA, 2019ko ekainaren 28koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/06/1903205a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko ekintzaileei zuzendutako deialdia. Lau ildo hauek ditu:

- a) Ekintzaile izan daitezkeen pertsonen zuzendutako laguntzak, enpresa-ideiak sortu, aztertu eta egituratzeko lanak egin ditzaten arduraldi osoan, ekintzailetzako toki-proiektuen esparruan. (ENPRESA-IDEIAK GARATZEKO LAGUNTZAK).
- b) Tokiko ekintzailetza-proiektuen esparruan, negozio-idea zehaztua duten ekintzaileek enpresa-proiektu berriak abian jar ditzaten bultzatzeko laguntzak. (ENPRESA-PROIEKTU BERRIAK ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK).
- c) Enpresa-jarduera bat hasi duten eta hura sendotzeko laguntza ekonomikoa behar duten pertsonentzako laguntzak (PROIEKTUA EZARTZEKO LAGUNTZAK).
- d) Enpresa-jarduera bati ekin dioten pertsonentzako laguntzak, jarduera hori sendotzeko. (ENPRESA-JARDUERA BAT SENDOTZEKO LAGUNTZAK).

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

**Lortutako emaitzak**

Sortutako enpresa-kopurua: 140

Laguntza ekonomikoa eskuratu duen ekintzaile-kopurua: 739

Entitate laguntzaileen kopurua: 28

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Deialdi honek arautzen dituen laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 4.100.000 eurokoak dira; horietatik, 2.705.000 euro 2019ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.395.000 euro, 2020ko konpromiso-kredituari, 32110- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren aurrekontuaren erabilera izeneko programan aurreikusitakoaren arabera.

2019an exekutaturako aurrekontua: 1.709.246,25 €



### Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Emaitzek badute behar besteko munta, eta, aurreikusitakoak baino apalagoak diren arren (badirelako beste erakunde batzuk ekintzaileentzako laguntza-programak dituztenak), programa baliagarria da, eragina du gizartean, ekintzailetza enplegua sortzeko aukera den garaiotan; hala, jarduera hori sustatzen jarraitu behar da, oraindik ez baita sortu besteren konturako enplegu nahikoa, eta ekimenaren hartzaile nagusiak gazteak baitira, hau da, gainerako langabeena baino langabezia-tasa handiagoa duen kolektiboa.

### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
- Sortutako enpresa-kopurua:	140	amaitu gabe
- Enpresa-idea bat garatzeko eta enpresa-proiektua abiarazteko enpresa-ekimenak sustatzen dituzten pertsonen kopurua:	560	626
- Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta eman duen pertsona-kopurua:	140	amaitu gabe
- Jada sortuta dagoen eta martxan jartzeko, Jarraitzeko nahiz egonkortzeko dirulaguntza jaso duen enpresa-kopurua:	980	739





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Errelebo-kontratua**

## 2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2019ko uztailaren 4ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen errelebo-kontratuak sustatzeko 2019ko laguntzen deialdia. (3387 Ebazpena, 2019/07/04koa - 131. EHAA, 2019ko uztailaren 11koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/07/1903387a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

30 urtetik beherako gazteen eta 45 urtetik gorako pertsonen enplegua sustatzen du, Lanbiden izena emanda daudenena eta enpresetan iraupen mugatuko kontratuekin lan egiten ari direnena.

Xede hori betetzeko, diruz laguntzen dira enpresek gazteen kolektibo horrekin sinatzen dituzten errelebo-kontratuak, honako baldintza hau jarrita: kontratuak lanaldi osokoak eta iraupen mugagabekoak izatea; edo, bestela, iraupen mugatukoak izanez gero, kontratua amaitu ostean edo bukatu aurretik mugagabe bihurtzeko konpromisoa hartzea hasieratik. Era berean, errelebo-kontratua duen pertsonak gutxienez 12.600€ irabazi behar ditu urtean.

Kontratu bakoitzeko 7.550€-ko laguntza emango da.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

**Lortutako emaitzak**

Kontratututako pertsona-kopurua: 84

**Aurrekontuaren exekuzioa:**

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.000.000 eurokoak dira guztira; horietatik, 600.000 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2019ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 400.000 euro 32110-Enplegurako programan aurreikusitako 2020ko konpromiso-kredituari.

2019an exekutututako aurrekontua: 392.751,00 €

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina:**

Emaitzak aurreko deialdikoak baino hobeak izan dira, 45 urtetik gorakoak lanean hasi direlako, zalantzarik gabe. Agerikoa da oso baliagarria dela eta gizartean eragina izan dezakeela; izan ere, programa horren helburua da belaunaldien arteko erreleboa erraztea, plantillak gaztetuz, gazteak kontratatzen badira, edo



esperientzia eta oraindik ere lan-ibilbide nahikoa duten pertsonak sartuz, 45 urtetik gorakoak kontratatzen badira (bi kolektibo horiek dituzte enplegua lortzeko zailtasun handienak).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Gazteei egin beharreko errelebo-kontratuen kopurua:	120	84
Errelebo-kontratuei lotutako kontratu osagarrien kop:	30	7
Parte hartu duen enpresa-kopurua:	150	77



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Familia eta lana kontziliatzeko laguntzak**

## 2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2019ko otsailaren 27an hartutakoa, zeinaren bidez zenbait diru-baliabide esleitzen baitira familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren IV. kapituluaren ezarritako laguntzak 2019ko ekitaldian finantzatzeko (1208 Ebazpena, 2019/02/28koa - 46. EHAA, 2019ko martxoaren 6koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/03/1901208a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Langabe moduan inskribatuta dauden pertsonak kontratatzeke dirulaguntzak emango dira, betiere jarraian azalduko diren pertsonak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten eta besteren kontura lan egiten duten langileak, edo kooperatiba-sozietateetako bazkide langileak edo lan-bazkideak ordeztzeko kontratatzen badira:

- Seme-alabak, 27.1 a) artikuluan aurreikusitako baldintzetan
- mendekotasuna duten senideak edo muturreko osasun-larrialdi egoeran daudenak, 27.1.b) artikuluan ezarritako ahaidetasun-harremana dutenean.

Era berean, diruz lagunduko da alde zuzenetik lanaldi partzialerako kontratatutako langile baten lanaldiaren luzapena, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa duen beste langile baten lanpostua betetzeko egin baldin bada.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

**Lortutako emaitzak**

Diruz lagundutako kontratazioak: 1.497

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Laguntza hauek finantzatzera 2019ko deialdian bideratutako baliabide ekonomikoak 1.700.000 €-koak dira.

Horri 214.000 € gehitu zitzaizkion (Guztira: 1.914.000 €)

2019an exekutututako aurrekontua: 1.911.514,26 €

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Programaren baliagarritasuna eta eragina adierazten dute kontratatutako eta enplegu-eskatzaile gisa izena emandako langile kopuruak, bai eta kontratazio horiek programaren onuradun izan diren enpresetan izan



duten eraginak ere, kontratazio horien bidez lortu baita, alde batetik, langileen lana eta familia bizitza bateragarri egitea, eta, bestetik, beste langile batzuk kontratatzea eta sinergie eustea programaren onuradun izan diren enpresetan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Kontratu-kopurua:	1.750	1.497
<p>2019ko deialdi horren emaitzak aurrekontu erabilgarriaren eta eskabideak ebazteko kontabilitate-epeen mende egon dira, baina kontuan hartu behar da ekitaldi horretan 300 baino eskabide gehiago geratu direla ebatzi gabe, eta, beraz, horiek ebatzitakoan lortuko direla, zalantzarik gabe, ezarritako helburuak.</p>		



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Desgaitasuna duten pertsonak enplegu-zentro berezietan laneratzea sustatzeko laguntza eta dirulaguntza publikoak**

## 2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, zeinaren bidez zenbait diru-baliabide esleitzen baitira Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Aginduan ezarritako laguntzak 2019an finantzatzeko. Agindu horren bidez, desgaitasuna duten pertsonak enplegu-zentro berezietan laneratze laguntza eta dirulaguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira. (1190 Ebazpena, 2019/02/28koa - 45. EHAA, 2019ko martxoaren 5ekoa).

Aurrekontua handitzea: Administrazio Kontseiluaren erabakia, zeinaren bidez areagotzen baitira 2019. urteko laguntzak finantzatzeko diru-baliabideak. (5457 Ebazpena, 2019/11/13koa - 24. EHAA, 2019ko azaroaren 25ekoa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/03/1901190a.shtml>

Aurrekontua handitzea: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/11/1905457a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Desgaitasuna duten pertsonen laneratzea, integrazio pertsonala eta gizarteratzea sustatzea, eta desgaitasuna duten ahalik eta pertsona gehien lan-erregimen arruntean integratzeko tresna izatea. Halaber, desgaitasuna duten langileen baldintza fisiko, psikiko edo intelektualetara egokitutako lanpostuak eskaintzen dira.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

**Lortutako emaitzak**

Kontrataturako pertsona-kopurua (batez besteko plantilla urtean): 9.876

Zentro-kopurua: 76

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Laguntza horiek 2019an finantzatzeko, hasiera batean 33.700.000 euro bideratu ziren. Gero, aurrekontua areagotzea onartu zen, 22.750.000 euro. Ondorioz, aipaturako laguntzak finantzatzeko aurrekontu-kredituaren zenbateko osoa 56.450.000 euro izan zen.

2019an exekutaturako aurrekontua: 55.734.042,80 €



### Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Etengabe ari da hazten enplegu-zentro berezietako lanpostu-kopurua: 2018ko abendutik 2019ko abendura bitarte, 104 lanpostu berri sortu dira, batez beste, desgaitasuna duten pertsonentzat.

Gaur egun, desgaitasuna duten 9.876 pertsonak dute, batez beste, lan-okupazioa eta -arreta, eta horrek eragin eta inpaktu sozial handia du, bai, batik bat, desgaitasuna dutenen familiengan bai dakarkien ongizatean, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzearen eta laneratzearen bidez.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
- EAEn indarrean dagoen EZB kopurua:	76	76
- Desgaitasuna duen langile kopurua, batez bestez:	8.950	9.876



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dirulaguntza, langabezia-prestazioa kobratzen dutenentzat. Ordainketa bakarra**

#### 2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, zeinaren bidez zenbait dirubaliabide esleitzen baitira Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan ezarritako laguntzak 2019an finantzatzeko. Agindu horren bidez, oinarri arautzaileak ezartzen dira langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen dutenei Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dirulaguntzak emateko, 1044/1985 Errege Dekretuaren 4.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. (1188 Ebazpena, 2019/02/28koa - 45. EHAA, 2019ko martxoaren 5ekoa).

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/03/1901188a.shtml>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzaren xedea da lan elkartuko kooperatiba bateko edo lan-izaerako sozietate bateko langile bazkideek, merkataritza-izaerako entitateak eratzen eta abian jartzen dituzten pertsona langabeek eta beren konturako erregimenean lanean hasten direnek jarduera profesionalak egitea. Dirulaguntza jaso ahal izateko, ezinbestekoa da Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak ordainketa bakarreko modalitatean eman izana langabezia-prestazioa, prestazio horrek egun zuen zenbateko osoan.

Horretarako, diruz laguntzen dira goian adierazitako langileek Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotak, baldin eta jasotzeko zuten langabezia-prestazioaren kopuru osoa batera eskuratzeko eskubidea erabili baldin badute, beren jarduera profesionalaren hasieran laguntzeko.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

##### **Lortutako emaitzak**

Prestazioa ordainketa bakar gisa jasotzeagatik LANBIDEren aldetik kuoten ordainketak jaso dituzten pertsonak: 554 (lehen ordainketa); 1224 (hurrengo ordainketak).

##### **Aurrekontuaren exekuzioa**

Laguntza horiek finantzatzeko baliabide ekonomikoak 500.000 euro izan dira 2019an.

2019an exekutaturako aurrekontua: 498.438,45 €

##### **Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Enplegua sustatzeko neurri honen xedea da prestazioen onuradunek enplegu propioa lor dezaten sustatzea eta autoenplegua bultzatzea, langabeziaren aurkako babes-politika pasiboen ordean enplegu-



politika aktiboei helduz. Krisi sozioekonomikoko egoerak edo ondorioak dauden bitartean (eta gaur egun krisialdi sanitario bat bizi dugu, dagoeneko ondorio laboralak eta ekonomikoak dituena) horrelako neurriak bultzatzen jarraitu behar da, langabeak lan-merkatuan sar daitezen errazteko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Kooperatibetan edo lan-sozietateetan bazkide modura sartu den pertsona-kopurua, edo autonomo hasi direnak, hau da, norberaren kontura:	750	554





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Dirulaguntzak, desgaitasuna duten pertsonak enpresa arruntean kontratu mugagabearekin kontratatzeko. 1451/1983 Errege Dekretua**

## 2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakia, zeinaren bidez zenbait dirubaliabide esleitzen baitira maiatzaren 11ko 1451/1983 Errege Dekretuaren II. Kapituluaren eta Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan ezarritako laguntzak 2019an finantzatzeko, biak ere desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko helburuarekin. (1189 Ebazpena, 2019/02/28koa - 45. EHAA, 2019ko martxoaren 5koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/03/1901189a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Hartutako neurrien helburua da desgaitasuna (sortzetikoa nahiz eratorria) duten pertsonen laneratzea bultzatzea, enpresa arrunteko lanpostuetan. Finean, dirulaguntza ematen zaie enpresei, desgaitasuna duten pertsonak kontrata ditzaten.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

**Lortutako emaitzak**

Kontratatutako pertsona-kopurua: 78

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Laguntza horiek 2019an finantzatzeko, 700.000 euro bideratu dira.

2019an exekutututako aurrekontua: 265.140,65 €

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean eta kontratu mugagabeen bidez laneratzen laguntzen du programa honek, eta baliagarritasun eta eragin sozial handiak ditu kolektibo horretako pertsonentzat, lan babestuaz bestelako lan-aukerak ematen dizkielako.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Kontratu mugagabe kopurua enpresa arruntean:	200	78



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Enplegua sustatzeko tokiko laguntzak**

## 2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2019ko otsailaren 27ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2019ko laguntzen deialdia. (1525 Ebazpena, 2019/02/28koa - 58. EHAA, 2019ko martxoaren 25ekoa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/03/1901525a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateei laguntzak ematea, enplegua sortzeko proiektuak abian jar ditzaten. Proiektu horiek eragina izan behar dute beren jardun-eremuko lurraldearen garapen sozioekonomikoan eta modernizazioan, eta modu orekatuan eskaini behar dituzten enplegu-aukerak Euskadiko eskualde guztietan; betiere, 2020 Euskal Enplegu Estrategiarekin bat etorrita eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa beteta.

Era berean, eta xede hori bera betetzeko, dirulaguntzak emango zaizkie enpresei, toki-entitateek sustatutako proiektu estrategikoen esparruan.

Deialdi honen azken xedea da Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden pertsonen enplegarritasuna hobetzea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

**Lortutako emaitzak**

Ekintzak aurkeztu dituen udal eta/edo mankomunitate kopurua: 45

Laneratutako pertsona-kopurua: 2.594

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 22.000.000 eurokoak dira; horietatik, 12.000.000 euro 2019ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 10.000.000 euro, 2020ko konpromiso-kredituari.

2019an exekutatutako aurrekontua: 11.571.851,57 €

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Programa honek, Autonomia Erkidegoaren eta Toki Entitateen arteko Lankidetzaren Esparruaren baitan, aukera ematen die toki-entitateei beren enplegu-planak bideratzeko, Enplegu Legeak ez baitie eskumenik



ematen gai-alor horretan. Hortaz, deialdi honen bitartez, EAEk Enplegu Legearen 4. artikuluan xedatutakoa betetzen du, enplegu-politiken tokiko dimentsioari buruz.

Toki-eremua da egokiena ekoizpen-aukera berriak aurkitzeko; beraz, ezinbestekoa da enplegu-politiken diseinuan eta kudeaketa-ereduan toki-izaera hori kontuan hartzea, lurraldeko beharretara egokitu behar baitira. Izan ere, horrela sustatuko dira aukera horiek aprobetxatzen laguntzen duten jarduketak, eremu horretako enplegu-sorrerako eta enpresa-jarduerako ekimenak sustatuz eta laguntza emanez, enpleguaren oinarrizko arauan ezarrita dagoen bezala, urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegu Legearen testu bateginean.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
- Ekintzak aurkeztu dituen udal eta/edo mankomunitate kopurua:	52	45
- Ekintza kopurua, tipologiaren arabera:		
-. Enpleguaren sustapena:	70	356
-. Kontratazioa sustatzeko laguntzak:	60	29
-. Bestelako ekintzak:	50	4
Laneratutako pertsona-kopurua:	2.200	2.594



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Laneratzeko enpresei zuzendutako laguntzak**

## 2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2018ko abenduaren 18ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzen deialdia. Laguntza horiek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan araututa daude. (6378 Ebazpena, 2018/12/18koa - 249. EHAA, 2018ko abenduaren 28koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/12/1806378a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laneratzeko enpresak bitarteko bat dira, hau da, Eusko Jaurlaritzak, horien bidez, politika publikoak aplikatzen ditu gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko, bai eta behar gehien duten kolektiboek eta bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen lan-merkatu arruntean laneratzeko laguntzeko ere, akonpainamenduaren bidezko laneratzeko- eta gizarteratzeko-prozesuen bitartez.

Laneratzeko enpresak **sortzeko** laguntzak ematen zaizkie enpresa horien sustatzaileei. Merkatu-azterlanak egiteko laguntzak dira, enpresa horiek sortzea bideragarria den ala ez jakiteko.

Laneratzeko enpresen **iraunkortasunerako** laguntzak honako hauek dira:

- Aktibo finkoetan egindako inbertsioak
- Gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortzea eta mantentzea
- Produktzioan laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortzea eta mantentzea
- Laneratzeko bidean laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortzea eta mantentzea
- Merkatu-azterlanak egiteko laguntza teknikoak
- Prestakuntza

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

**Lortutako emaitzak**

Indarrean diren laneratzeko enpresak: 6

Betetako laneratzeko-postuen kopurua: 699 laneratzeko-postu

Laneratzeko laguntzeko zenbat teknikaririk jaso duten dirulaguntza: 134



#### Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko diru-baliabideak 10.220.000 eurokoak dira; horietatik, 1.870.000 euro 2019ko ordainketa-kredituari dagozkio, 3.240.000 euro 2020ko konpromiso-kredituari, 3.240.000 euro 2021eko konpromiso-kredituari eta 1.870.000 euro 2022ko konpromiso-kredituari, 3211 programaren kargura – Enplegua, 41. Sekzioa, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua.

2019an exekutatutako aurrekontua: 1.657.031,49 €

#### Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Emaitzak positiboak dira, eta horrek on egiten die programa honen baliagarritasunari eta eragin sozialari. Programaren helburua da baztertuta edo baztertuak izateko arriskuan diren pertsonak laneratzea, izan ere, haiek dituzte zailtasunik handienak bizi dugun krisialdi orokorrari aurre egiteko.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Indarrean den laneratzeko enpresa-kopurua:	44	46
- Baztertuak izateko arriskuan egonik laneratzeko enpresetan kontratatu diren pertsonak, Lanbideren laguntzarekin:	600	699
- Laneratzeko enpresetan kontratatu beharreko teknikari laguntzaileak, Lanbideren laguntzarekin:	140	134



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Laguntzak SINTEL enpresako langileei**

## 2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hartutako Erabakia, zeinaren bidez dirubaliabideak esleitzen baitira 2019an 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak finantzatzeko, betiere laguntza horiek emateko prozedurari jarraituz, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduan xedatutakoarekin bat (1187 Ebazpena, 2019/02/28koa - 45. EHAA, 2018ko martxoaren 5ekoa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/03/1901187a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Sintel enpresaren enplegu-erregulazioko espedienteetan sartu ziren langileak berriro laneratzeko laguntzea, eta langile horiei laguntza bereziak eskaintzea. Laguntzak hilero ordaintzen dira, eta langile-ohiek Gizarte Segurantzarekin izenpetu zuten hitzarmen bereziaren kostua ordaintzeko zenbateko gehigarriak izan daitezke.

Erretiroa hartzeko adina bete arte luza daitezke laguntza hauek.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

**Lortutako emaitzak**

Langile onuradunen kopurua: 7 (2019an bat ere ez)

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Zenbatekoa 242.440 eurokoa da guztira; horietatik 28.800 euro 2019ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta gainerakoa hurrengo ekitaldietako konpromiso-kredituari, 2020tik 2031era bitartean.

2019an exekutututako aurrekontua: onuradun berririk ezean, ez zen gasturik izan.

Aurreko ekitaldietako onuradunengatik exekutututako aurrekontua: 55.098,57 €

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Lan-merkatuak egun bizi duen egoerari erreparatuta, ikusten da krisiaren aurretik baino pertsona gehiagok izan dezaketela laguntza hau eskatzeko eskubidea (20 bat gehiagok); hori horrela, aurrekontuetan egin diren aurreikuspenak beste egoera egonkorrago batzuetan egingo liratekeenak baino handiagoak dira. Zenbatekoen aurreikuspena egitean, beraz, urtero 4 eskaera gehiago egon daitezkeela hartu da kontuan.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Langile onuradunen kopurua:	10	7
Langile onuradun berrien kopurua	4	0



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Enplegu-zentro berezietan lanbide-jarduera sustatzeko unitateak**

## 2.- Araua

Erabakia, 2018ko abenduaren 18ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen 2019ko laguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegu Zentro Berezietako Lanbide Jarduerari Laguntzeko Unitateak finantzatzeko. (6739 Ebazpena, 2018/12/18koa - 249. EHAA, 2018ko abenduaren 28koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/12/1806379a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza ematea enplegu-zentro berezietan lanbide-jardueran laguntzeko unitateetako langileak kontratatzeko: profesional askok osatutako lantaldeak dira laguntzeko unitateak, eta beren egitekoa da enplegu-zentro berezietan laguntza ematea, desgaitasuna duten pertsonen eta lanpostu bat eskuratzeko prozesuan oztopo eta eragozpen handiak dituzten pertsonen laneratzeko zailtasunak gainditzeko, baita lanpostu horietan mantentzeko ere. Desgaitasuna duten pertsonak gizartean integrazio osoa izango dutela bermatzen dute enplegu-zentro berezietako egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuek.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

**Lortutako emaitzak**

Laguntzeko unitate-kopurua: 35

Desgaitasuna duen erabiltzaile-kopurua: 4.412

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Deialdi honetako laguntzak 2019an finantzatzeko, 4.200.000 euro bideratu dira.

2019an exekutaturako aurrekontua: 4.199.999,98 euro

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Laguntzeko unitateen programak zuzenean bermatzen du enplegu-zentro berezietako teknikarien enplegua mantenduko dela. Desgaitasuna eta laneratzeko zailtasun handiak dituzten pertsonen lanpostuak eskuratzeko eta lanpostu horietan mantentzeko behar duten laguntza eta akonpainamendua emateko prozesuez arduratzen dira zentro horiek. Haien laguntzarik gabe, ezingo litzateke bermatu kolektibo horren laneratzeari (eta gizarteratzeari).





## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
- Diruz lagundutako lanbide-jardueran laguntzeko unitate-kopurua:	37	36
- Desgaitasun larria izanik laguntzeko unitateak erabiltzen dituen langile-kopurua:	4.120	4.573



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Lehen Aukera Programa**

## 2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2018ko abenduaren 18ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez 2019. urterako laguntzen deialdia onartzen baita gazte langabeak EAeko enpresetan kontratatzeko. Lehen Aukera programa. (6380 Ebazpena, 2018/12/18koa - 249. EHAA, 2018ko abenduaren 28koa).

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2019ko otsailaren 12ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez 2019. urterako laguntzen deialdiaren aldaketa onartu baitzen, gazte langabeak EAeko enpresetan kontratatzeko, «Lehen Aukera» programa (848 Ebazpena, 2019/02/13koa - 34. EHAA, 2019ko otsailaren 18koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/12/1806380a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/02/1900848a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak (16 eta 30 urte bitartekoak) kontratatzea, praktikaldia egiteko edo kontratu mugagabearekin. Kontratuak EAeko enpresek egingo dituzte, lanbide-esperientziaren bidez gazte horien enplegarritasuna hobetzeko neurri gisa, eta haien laneratzea egonkortzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

**Lortutako emaitzak**

Lehen lana eskuratu duen pertsona-kopurua: 619

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 4.000.000 eurokoak; horietatik, 2.153.846 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrekontuko 2019ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.846.154 euro, 2020ko konpromiso-kredituari.

Deialdi hau finantzatzeko bideratutako baliabide ekonomikoak honela banatuko dira:

- a) 3.846.154 euro lan-kontratu mugagabeak eta praktikaldiko kontratuak finantzatzeko. Aurrekontu horretatik 2.000.000 euro 2019ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.846.154 euro, 2020ko konpromiso-kredituari.



- b) 153.846 euro 12. artikuluan ezarritako entitate laguntzaileek lan-eskaintzak jaso, erregistratu eta kudeatzeko, bai eta trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egiteko ere, 2019ko konpromiso-kredituaren kontura.

2019an exekutaturako aurrekontua: 1.980.588,92 €

#### **Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Programaren xedea da gazteen eta krisialdi ekonomikoaren kalte handienak jaso dituzten herritar-multzoen langabezia murriztea. Hain zuzen ere, gazteen langabezia murriztea da gure gizartearen erronka nagusietako bat, eta erronka horri aurre egin behar diote bai erakunde publikoek bai enpresa pribatuek. Arazo honen konponbidean arrakasta lortuko da, hein handi batean, parte hartzen duten antolakunde eta sektore guztien laguntzari zein koordinazioari esker, baita ekimen pribatuak egokiak diren neurriak diseinatzean, hartzean eta martxan jartzean duen partaidetzari esker ere.

Esperientziarik eza da gazteek lan-merkatuan sartzeko orduan duten zailtasunik handiena. Hori dela eta, deialdi honen xedea da erraztasunak ematea, ikasketak amaitu berri dituzten gazteei lan-munduan sartzeko lehen aukera emateko, hezkuntza-bizitzatik bizitza profesionalera errazago igaro daitezen. Horretarako, esperientzia biziko dute lanpostuan, eta, horrenbestez, lana aurkitzeko edo mantentzeko aukerak hobetuko dira.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
- Gazteei egin beharreko praktikaldiko kontratu-kopurua:	800	513
- Gazteei egin beharreko kontratu mugagabeen kopurua.	80	106
- Parte hartu duen enpresa-kopurua:	450	395



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Tokiko entitateek gazteak kontratatzea, 2014-2020 eperako Gazte Enpleguaren Programa Operatiboaren esparruan**

## 2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2019ko ekainaren 18ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen 2019ko ekitaldiko laguntzen deialdia, toki-entitateek gazteak kontrata ditzaten 2014-2020 eperako Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren esparruan. (3206 Ebazpena, 2019/06/18koa - 122. EHAA, 2019ko ekainaren 28koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/06/1903206a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da gazte langabeak (16 eta 30 urte bitartekoak) kontratatzea beren titulazioarekin lotutako lanpostuetarako, beren tituluekin lotutako lanetan esperientzia txikia edo batere esperientziarik ez duten heinean eta bai Lanbiden bai Gazte Bermerako Sistemari izena emanda dauden heinean.

Kontratuak toki-entitateek egingo dituzte, esperientzia profesionalaren bidez gazte horien enplegarritasuna hobetzeko, eta, hartara, haien laneratzea egonkortzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

**Lortutako emaitzak**

- Eskaera-kopurua: 36

Kontratu-kopurua: 260

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Deialdi honetako laguntzak finantzatzeko, 6.500.000 euro bideratu dira, 2019ko ordainketa-kredituaren kontura.

2019an exekutaturako aurrekontua: 5.139.305,00 €

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Programaren xedea da gazteen eta krisialdi ekonomikoaren kalte handienak jasan dituzten herritar-multzoen langabezia murriztea. Hain zuzen ere, gazteen langabezia murriztea da gure gizartearen erronka nagusietako bat, eta erronka horri aurre egin behar diote bai erakunde publikoek bai enpresa pribatuek. Arazo honen konponbidean arrakasta lortuko da, hein handi batean, parte hartzen duten antolakunde eta



sektore guztien laguntzari zein koordinazioari esker, baita ekimen pribatuak egokiak diren neurriak diseinatzean, hartzean eta martxan jartzean duen partaidetzari esker ere.

Esperientziarik eza da gazteek lan-merkatuan sartzeko orduan duten zailtasunik handiena. Hori dela eta, deialdi honen xedea da erraztasunak ematea, ikasketak amaitu berri dituzten gazteei lan-munduan sartzeko lehen aukera emateko, hezkuntza-bizitzatik bizitza profesionalera errazago igaro daitezen. Horretarako, esperientzia biziko dute lanpostuan, eta, horrenbestez, lana aurkitzeko edo mantentzeko aukerak hobetuko dira.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
- Gazte Bermerako Sisteman inskribatutakoei egin beharreko kontratu-kopurua:	400	260
- Parte hartu duen toki-entitateen kopurua:	53	34



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Tokiko enplegua garatu eta sortzeko proiektuak**

## 2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2019ko maiatzaren 22ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen tokiko ekintzetarako 2109ko laguntzen deialdia, batez ere eremu eta udalerrri behartsuetara bideratua enplegua sustatzeko (2642 Ebazpena, 2019/05/23koa - 102. EHAA, 2019ko maiatzaren 31koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/05/1902642a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburua 2019an laguntzak ematea Europar Batasunak behartsutzat katalogatutako eremuetako toki-entitateei, eta, bereziki, langabezia-tasa altuak dituztenei, jarduketaren xede den eremuan bizkortze ekonomikoa lortzen eta enplegua sortzen laguntzen duten proiektuak abiarazteko, bat etorritz 2020rako Enpleguaren Euskal Estrategiarekin eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioarekin.

Deialdi honen azken xedea da Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden pertsonen enplegarritasuna hobetzea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

**Lortutako emaitzak**

Ekintzak aurkeztu dituen udal eta/edo mankomunitate kopurua: 31

Laneratutako pertsona-kopurua: 981

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 10.000.000 eurokoak dira; horietatik, 5.500.000 euro 2019ko aurrekontuko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 4.500.000 euro, 2020ko konpromiso-kredituari.

2019an exekutaturako aurrekontua: 5.060.347,06 €

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Programa honek, Autonomia Erkidegoaren eta Toki Entitateen arteko Lankidetzaren Esparruaren baitan, aukera ematen die toki-entitateei beren enplegu-planak bideratzeko, Enplegu Legeak ez baitie eskumenik ematen gai-alor horretan. Hortaz, deialdi honen bitartez, EAEk Enplegu Legearen 4. artikuluan xedatutakoa betetzen du, enplegu-politiken tokiko dimentsioari buruz.



Toki-eremua da egokiena ekoizpen-aukera berriak aurkitzeko; beraz, ezinbestekoa da enplegu-politiken diseinuan eta kudeaketa-ereduan toki-izaera hori kontuan hartzea, lurraldeko beharretara egokitu behar baitira. Izan ere, horrela sustatuko dira aukera horiek aprobetxatzen laguntzen duten jarduketak, eremu horretako enplegu-sorrerako eta enpresa-jarduerako ekimenak sustatuz eta laguntza emanez, enpleguaren oinarritzko arauan ezarrita dagoen bezala, urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegu Legearen testu bateginean.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
- Ekintzak aurkeztu dituen udal eta/edo mankomunitate kopurua:	0	31
- Ekintza kopurua, tipologiaren arabera:		
-. Enpleguaren sustapena:	0	194
-. Kontratazioa sustatzeko laguntzak:	0	11
-. Bestelako ekintzak:	0	0
Laneratutako pertsona-kopurua:	0	981